



INFORMAZIO-ZIRKULARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOKO LANBIDEETAN SARTZEARI ETA JARDUTEARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 8/2022 LEGEA GARATZEN DUEN UZTAILAREN 28KO 161/2025 DEKRETUA BAINO LEHEN KIROL-ARLOKO LANBIDEREN BATEAN LAN EGITEN ZUTENEK LANBIDE-JARDUNERAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA AURKEZTEARI BURUZKOA

Zioen azalpenean Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legeak iragartzen duen bezala, «lege-aldaketa guztiek trantsizio-arazo handiak eragiten dituzte, eta are gehiago lanbide baten lehenengoz sartzea eta jardutea arautzen duten legeek».

Horretaz jabetuta, Legeak mekanismo ugari sartu zituen hura pixkanaka eta ez traumatikoki ezartzeko. Hala, adibidez, hainbat urteko denbora tarte luzea aurreikusi zuen (2022-2026), eragile publiko eta pribatu guztiek lege horretan aurreikusitako eskakizunak ezagutzeko eta egokitzeko. Hala eta guztiz ere, Zuzendaritzak egiaztatu du profesionalak ez dutela legea ezagutzen; hori dela eta, atzeratu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan lanbide-jarduna baimentzen duten erantzukizunpeko adierazpenak elektronikoki aurkezteko betebeharra. Gaur arte, milatik gora erantzukizunpeko adierazpen aurkeztu dira erregistroan. Zifra hori oso positiboa da, kontuan hartuta 161/2025 Dekretua 2025eko abuztuaren 25ean argitaratu zela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, baina argi dago ez dela nahikoa EAEko kirol-sektorearen eskaerei behar bezala erantzuteko.

Erantzukizunpeko adierazpenak Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan aurkezteko eskakizunari dagokionez, data esanguratsuak hurbiltzen diren heinean, beharrezkoa da zirkular honen bidez Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren baitan hartutako irizpide batzuen berri ematea. Irizpide horiek, zalantzarik gabe, Legeak berariaz ezartzen duen pixkanakako ezarpena lortzen laguntzen dute.

Irizpide horiek azaltzeko eta sor daitezkeen zalantzak eta ziurgabetasunak argitzeko, hainbat pertsona-talderen egoerak bereizi behar dira:

- **LEHENENGO TALDEA.** Legea indarrean jarri aurretik (2022ko uztailaren 20a) zegokien lanbidean ziharduten pertsonak, baina Legeak eskatzen duen lanbide-kualifikaziorik gabe. Gaikuntzarako erantzukizunpeko adierazpena 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen aurkeztu behar dute, 161/2025 Dekretuaren lehen xedapen iragankorren arabera.
- **BIGARREN TALDEA.** Legea indarrean jarri aurretik (2022ko uztailaren 20a) zegokien lanbidean legez eskatzen den kualifikazio profesionalarekin ari ziren pertsonak. 161/2025 Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu behar dute erantzukizunpeko adierazpena. Argitalpena 2025eko abuztuaren 25ean egin zen, eta, ondorioz, epe hori 2025eko azaroaren 25ean amaituko da.
- **HIRUGARREN TALDEA.** Legean eskatzen den kualifikazio profesionalarekin eta 161/2025 Dekretua baino lehen kirol-arloko lanbideetan aritzen ziren pertsonak. Logikoa denez, pertsona horiek hiru hilabete dituzte (2025eko azaroaren 25era arte) erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko.



LEHEN TALDEARI dagokionez, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak, 161/2025 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren 2. atalean jasotako gaikuntzaren babesean, agindu bat onartuko du laster erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epea 2026ko irailaren 30era arte luzatzeko; izan ere, epe zabala da, eta, gainera, bat dator 2025/26 kirol-denboraldi eta ikasturte gehienen amaierarekin.

BIGARREN eta HIRUGARREN TALDEEI dagokienez, irizpide horrekin berarekin bat etorritik, 161/2025 Dekretuak epea luzatzeko berariazko gaikuntzarik jasotzen ez duen heinean, zentzuzkoa da egokitze hiru hilabete gehigarri ahalbidetzea. Hala ere, formalki ez da epea luzatzea, baizik eta sektoreari erraztea. Horregatik, jakinarazten dugu ez dugula zehapen-espedienteei hasiera emango epe honetan (2026ko irailaren 30era arte).

Era berean, jakinarazten dugu hemendik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideren batean hasi nahi duten pertsona guztiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dutela jarduera hasi aurretik.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 24a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

GORKA ITURRIAGA MADARIAGA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Actividad Física y Deporte